

INGURUMENA

IM eta IZSAren Energia Estrategia (MANCOENER) 2023ko maiatzean Batzar Nagusiak egin zuen saioan onartu zen. Plangintza-dokumentu honen denbora-muga 2035a da, eta IMren Batzarrak 2021eko otsailaren 22an egin zuen saioan onartu zuen IM eta IZSAren klima-aldaketarako estrategia sendotu eta osatu egiten du. Hain zuzen, aurreneko dokumentu horretan ezarri zen Mankomunitateak ematen dituen zerbitzu guztietarako 2030erako karbono-neutraltasuna lortzeko helburua.

Onartutako Energia Estrategiak (MANCOENER) egiturazko aldaketa ekarriko du energia berriztagarriak sortu eta aprobetxatzean, bai IM eta IZSAk beren instalazioetan sor ditzakeenetan, bai zerbitzuen energia-kontsumoetan ere. Hala, IM eta IZSAren zerbitzuen energia-trantsizioa definitzen du, hiru helburu argi hauekin:

- IM eta IZSAk sortutako energia berriztagarria biderkatzea, elektrikoa (fotovoltaikoa, hidraulikoa, etab.), termikoa (aeroterminia, geoterminia, hidrotermia, etab.) eta erregaiak (biometanoa).
- Energia-autosufizientzia. 2030ean autosufizientziaren % 90 gainditzeko asmo handiko helburua, sortutako energia modurik eraginkor eta efizienteenean aprobetxatuz.
- Estrategia honen kudeaketa adimenduna, energia-kudeaketarako sistema baten eta berrikuntzaren bidez (berrikuntza teknikoa eta soziala ere energiaren jardueran).


MANCOENER estrategiaren xedea da IMk eta IZSAk energia berriztagarria sortzeko dituzten instalazioen kopurua handitzea, egungo 7etatik 113ra igarota, eta, are garrantzitsuagoa dena, egungo 49 GWh/urte sortzetik 114 GWh/urte sortzera igarotzea. Hilabete horretan bertan, plantillan sartu zen Energia Berriztagarrietako eta Azpiegituretako teknikaria, onartu den estrategia ezartzearen arduraduna izango dena.

MATRIZE ENERGETIKOA


Estrategia honen elementu giltzarria gure matrize energetikotik deskarbonizatu batera igarotzea da, bertan sortutako energia askoz ere gehiago aprobetxatuko duen batera. Jarraian, lanaren oinarri-urterako matrizea (2021) eta 2023rako erakusten da.

2021		2022		2023	
↓	↑	↓	↑	↓	↑
ENTRADAS	SALIDAS	ENTRADAS	SALIDAS	ENTRADAS	SALIDAS
ENERGÍA COMPRADA 74.791.092	ENERGÍA CONSUMIDA 93.376.272	ENERGÍA COMPRADA 77.251.950	ENERGÍA CONSUMIDA 97.508.985	ENERGÍA COMPRADA 79.235.664	ENERGÍA CONSUMIDA 97.368.081
ENERGÍA GENERADA 48.981.592	ENERGÍA INYECTADA 30.396.412	ENERGÍA GENERADA 46.483.942	ENERGÍA INYECTADA 26.226.907	ENERGÍA GENERADA 49.697.649	ENERGÍA INYECTADA 31.565.232
123.772.684	123.772.684	123.735.892	123.735.892	128.933.313	128.933.313

Gainera, urtez urte energia berriztagarriek matrize horretan duten eginkizuna handitzen goaz, erakundearen energia berriztagarriko proiektuak garatzea eta elektrizitaterako eta gaserako jatorri berriztagarriko bermea duten energia erostea barne hartuta.



Energia berriztagarriaren bilakaera energia erostean



Energia berriztagarriaren bilakaera energia kontsumoan

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SORTZEA

IMk energia trantsizioan duen konpromisoa argi gelditzen da, horrenbestez, lehenago deskribatu den klima-konpromisotik eratorrita. Energia berriztagarrien alde egiteak aurrera egiten jarraitzen du eta handitzen bere ezartze-erritmoa.

Proiektu berriztagarriak garatzeko bide bati heldu diogu, MANCOENERen jasota dagoen moduan.

Egun, teknologia hauek ditugu operazioan:

- Energia hidroelektrikoa Urtasun, Eugi eta Egillorko zentraletan.
- Arazuriko HUAn lohiak tratatzean eta Gongorako HHTZko zabortegean sortutako biogasa aprobetxatzea.
- Eguzki-energia fotovoltaikoa.
- Bero-ponpak aplikatzea.

APROBETXAMENDU HIDRAULIKOA

Bi zentral hidroelektrikok, Eugikoak eta Egillorkoak, energia ekoizten dute Eugiko urtegiko eta Artetako iturburuko ur-soberakinetatik, hurrenez hurren. Hirugarrenak, Urtasungoak, tratatzeko plantara ura sartzea baliatzen du, hau da, turbinak eragiten dira lehenbizi, eta, gero, tratatu egiten da kontsumitu ahal izateko.

Zentral hauek erabiltzen jarraitzen da eta beren ekoizpena ahal den guztia optimizatzen da, energia elektriko berriztagarria sortuz, dagokien jatorri berriztagarriko bermeekin. 2023 honetan, ia 17 milioi kWh energia sortu dira.

ARAZURIKO ARAZTEGIKO ETA GONGORAKO HIRI HONDAKINAK TRATATZEKO ZENTROKO BIOGASA

Arazurin hondakin urak araztuta sortzen diren lohien digestio anaerobioak eta Gongorako zabortegean utzitako hiri hondakinen materia organikoaren deskonposizioak sortzen dute biogasa. Biogas horrek % 50-60 arteko metano-kopurua

du, batez beste, eta adierazitako tokietan dauden kogenerazio plantetan elektrizitatea eta beroa sortzeko erabiltzen dute.

Arazuriko araztegiak kogenerazioko instalazio bat du. 2023 honetan, 17.129.412 kWh sortu ditu. 11.764.221 kWh elektrikoak izan dira, eta haietatik gehienak instalazioan bertan kontsumitu dira eta ia 2.000.000 sarera igorri dira eta merkatu elektrikoan saldu dira. Eta 5.365.191 kWh berokoak izan dira, instalazioan bertan aprobetxatu direnak.

Gongorako HHTZren kasuan, 11 milioi kWh baino gehiago sortu ziren. Haietatik ia 10 milioi merkatu elektrikoan saldu ziren eta gainerakoa plantan bertan kontsumitu zen.


EGUZKI-ENERGIA FOTOVOLTAIKOA

MANCOENERen definitutako helburuetako ba ta da erakundeak energia berriztagarriak sortzeko duen ahalmena handitzea. 2019an, hain zuzen, eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuak garatzen hasi zen, elektrizitatea sortzeko, bai erakundearen kontsumorako bai eta sarera igortzeko ere. Egun, zortzi instalazio ditugu martxan: sei autokontsumo indibidualeko modalitatean, soberakinekin, bat soberakinik gabea eta zortzigarrena bakartua.

Egungo kokalekuak hauek dira:

- Egillorko EUTE.
- Agustindarren industrialdeko tailerra.
- E.Leclerc supermerkatuko garbigunea (instalazio bakartua, biltegiatzearekin).
- Astrain, Muru Astrain, Olatz, Noain eta Getzeko EUPEak.

Jarraian, instalatutako potentziaren bilakaera (311 kW eta gehiago, egun) eta instalazioen kopurua (8 guztira 2023a arte) ageri dira.



Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioen bilakaera

Edateko Ura Ponpatzeko Estazioetan 2023an kokatutako eguzki-energia fotovoltaikoko lau instalazio berriek ezaugarri hauek dituzte:

KOKAPENA	Pp (kW)	Pn (unitarioa)	EKOIZ. (kWh/urte)	GEN vs KONS
GETZE-ARLEGIKO EUPE	13,56 kWp	10,0 kWn	15.131 kWh	% 6

OLAZKO EUPE	31,64 kWp	30,0 kWn	35.686 kWh	% 15
MURU ASTRAIN-ASTRAINGO EUPE	10,44 kWp	10,0 kWn	10.176 kWh	% 22
NOAINGO EUPE	31,08 kWp	30,0 kWn	34.789 kWh	% 19

BERO-PONPA

IM eta IZSAren helburua da erregai fosilen bere eskaera guztiak ezabatzea. Emandako pausoetako bat da lehen zeuden gasolio eta gas natural bidezko galdarak kendu eta bero-ponpako sistemak kokatzea. Bero-ponpen teknologia desberdinak aplikatu dira, erregai fosilak kontsumitzea ekiditeko.

Energia elektrikotik abiatuta sorkuntza termikoko (beroa eta hotza) teknologia berriztagarri hau ezin hobeto hibridatu ahal da tokiko energia fotovoltaiakoaren sorkuntzarekin. Egun, instalazio hauek ditugu.

- Hidrotermia bero-ponparekin (panel fotovoltaiakoek elikatuta) Egillorko EUTEn.
- Aerotermia eta geotermia Salestarren egoitza berriko eraikinean.
- Aerotermia instalazio berri bat kokatzen hastea SIMZen, egun dagoen gas galdara ordeztzeko.

EUROPAKO PROIEKTUAK

STARDUST. Proiektu hau amaitzeko beharrezkoa den kudeaketa egiten jarraitu da. Zehazki, haren hirugarren justifikazioa egin da eta proiektuari lotuta ezarritako neurriak monitorizatu dira, adibidez, Egillorko EUTEn fotovoltaiakoarekin hibridatutako hidrotermikoa eta EHGaren 9. linea, linea elektrikoa.

Carma H2. IM eta IZSAren instalazioetan hidrogeno berdea garatzeko proposamen bat aurkeztu da. Hasiera batean, ez zuten laguntza esleitu, baina, itxaron-zerrendan sartu zuten eta 2024an laguntza esleitu dute.

Plan4CET. Improving Clean Energy Transition planning at local and regional level. Kasu honetan, EBko Life-2022-CET programaren barnean eta bai Nafarroako Gobernuarekin ere, proiektuaren lider moduan, eta gure parte hartzea tokiko agente nabarmen moduan. PLAN4CET egitasmoaren helburu nagusia da EBko eskualdeei eta hiriei babesa ematea energia garbi bateranzko trantsizioan, plangintzako prozesuak eta ikuspegiak hobetuz tokiko eta eskualdeko mailan (barne hartuta tokiko eta eskualdeko mailan erakunde-lankidetzaz sustatzea eta hobetzea, eta tokiko eta eskualdeko mailan elkarlan sektoriala sustatu eta hobetzea). Proiektuaren emaitza nagusiak hauek izango dira:

- Energia garbi baterako trantsiziorako eskualdeko eta tokiko estrategiak eta planak.
- Plangintzarako tresnak eta metodologiak.
- Babes eta laguntza pertsonalizatuak udalerriei eta eskualdeei.